

## **BALIABIDEAK**

Baliabideen artean hiru motatakoak dauzkagu. Alde batetik **baliabide fisikoak** ditugu, gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoa dugun materiala. Honen barruan, txip-ak egiteko makinak, beste enpresa bati alokatutako makinak, beharko genituzke; ordenagailuekin eta txip-ak sortzeko erabiliko dugun birziklatutako plastikoa; modu honetan ingurunea gutxiago kutsatzeko, silizioa (elektrizitatearen eroalea, kableentzako) eta nahi dugun objektuari itsasteko kateorraz, iman eta pegatinen bitartez. Lokal bat ere alokatuko genuke fabrikazio prozesua aurrera eramateko. Beste aldetik **baliabide intelektualak** eta giza baliabideak dauzkagu, gure taldea osatzen duten pertsonen beharrezko gaitasunak, alegia. Mikelek bere gaitasun informatikoa erabiliko du, Julenek, aldiz, matematiketan oinarritutako kontabilitatea eramango du. Anne txiparen diseinatzailea izango da, hau, da, txiparen barruko funtzionamendua eta kanpoko itxura zehaztuko duena. Teresa, marketing-az arduratuko da, produktua bezeroengana heltzea prozesua burutuko du, beste enpresa batzuekin elkar-lana eginez. Bukatzeko, Sofia taldeari laguntzeko eta edozein motatako arazoei aurkibide bat emateko koordinatzailea izango da. Azkenik, **finantza-baliabideak** aipatuko ditugu. Proiektuari hasiera emateko, gure aurrezkiak erabiliko ditugu, baina enpresa aurrera doan heinean, lortutako irabaziak erabiliko ditugu.